

GIDALIBURUAREN 2. FASEA: BARRUTIKO HAUTESKUNDE BATZORDEAK ETA BOTO TXARTELAK

BARRUTIKO HAUTESKUNDE BATZORDEAK

Ikastegi bakoitzean hauteskunde batzorde bat eratuko da, era honetara osatua: barrutiko irakasle eta ikertzaile doktore iraunkorren ordezkari bat eta ikasleen ordezkari bat, ikastegiko batzarreko kideen artetik zozketaz aukeratuak; batzordeko burua dekanokoa izango da, eta hark bere ordezkari izendatutako pertsona, eta batzordeko idazkaria, ikastegiko idazkari akademikoa.

Ikastegiren batean osatuta badute ikastegiko hauteskunde batzordea eta batzorde horretan irakasle eta ikertzaile doktore iraunkorren eta ikasleen ordezkariarik badago, gure gomendioa da ordezkari horiek berak izatea hauteskunde batzordeko kide errektorea aukeratzeko hauteskundeetan. Ikastegiko batzarrean ez balego irakasle eta ikertzaile doktore iraunkorren taldeko ordezkariarik, zozketa ikastegian talde horretako erroldan ageri diren kideen artean egin beharko litzateke.

Gogorarazten da, haitegietako kideek ezin izango dutela Hauteskunde Batzordeetako kide izan.

Irakasle eta ikertzaile iraunkor ez doktoreen, gainontzeko irakasle eta ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen (AZP) campuseko hauteskunde batzordeko burua campuseko errektoreordea izango da (edo hark bere ordezkari izateko izendatzen duen pertsona) eta adineko mahai batez osatuta egongo da. Idazkaritza Nagusiak helaraziko dio campuseko errektoreordetzari aipatutako talde bakoitzeko kide nagusien zerrenda. Horien arteko gazteena izango da batzordeko idazkaria.

Barrutiko hauteskunde batzorderako zozketa ikastegiko dekanokoa edo zuzendariak eta campuseko errektoreak egingo du; zozketa jendaurrekoa izango da eta, beraz, zozketa baino gutxienez 48 lehenago iragarri beharko da, ikastegian eta campusean, noiz eta zein ordutan egingo den.

Zein da barrutiko hauteskunde batzordearen eginkizun nagusia?

Errektorea aukeratzeko hauteskundeetan, hauteskunde mahaietako kideak aukeratzeko zozketa eta mahaiak egoki osatu direla egiaztatzea (mahaiaren osaera: mahaiburua, 2 mahaikide eta bi ordezeko) dagokie.

Nahiz eta Ikastegietan botoa eman, IIP ez doktore iraunkorren eta Gainontzeko IIPko sektoreen kasuan hauteskunde barrutia Campusa da. Emaitzak Idazkaritza Nagusira bidaliko dira.

Gogorarazi nahi dizuegu unibertsitateko kide guztiek **NAHITAEZ ONARTU BEHAR DUTELA MAHAIKO KIDE IZATEA**, baina gai hori gidaliburu honetako hirugarren fasean, azkenekoan, landuko da.

BOTO TXARTELAK

Errektorea aukeratzeko hauteskundeetan, sektore bakoitzak koloreetako boto txartel eta gutunazal bat erabiliko du.

IIP: Berdea

IIP ez doktore iraunkorrek: Urdina

Bestelako IIP: Horia

Ikasleak: Zuria

AZP: Larrosa